2022-10-28 OSTIRALA / 1603. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

txintxarri

Prestatu datorrenerako!

Larunbata 22

Udaletxe zaharrean hasi zen Maratoia, zortzikotekoen txupinazoen ondoren. TXINTXARRI

'Besarkada' eskultura Okendora eramaten. TXINTXARRI

Goiz-goizetik, herritarrak dantzan. TXINTXARRI

Txalapartariak eta gosari literarioa. TXINTX.

Ttakun KEko lehendakariak eta alkateak moztu zuten zinta. TXINTXARRI

Txistulariek aitortza xume bat jaso zuten hasiera ekitaldian. TXINTXARRI

GuruBuruak jarraitzaile bila ari dira. TXINTXARRI

Lepo bete zen Okendoko karpa, ikastetxeetako haur eta irakasleak dantzan ikusteko. TXINTXARRI

'Palmondoa, Okendora!'. TXINTXARRI

Proba mistoa egin zuten Elizatze plazan. TXINTXARRI

Jagoba, kameralari lanetan. TXINTXARRI

Gogoratu: jaten hasi aurretik, 'hatuanaza'. TXINTXARRI

'Zu ez daukazu gozea, zu daukazu urduritazuna'. TXINTXARRI

Zerbitzarien lana, ezinbestekoa. TXINTXARRI

Oaintxe in deu! txarangak girotu zuen bazkalostea. TXINTXARRI

Ametsen zuhaitza landatu zuten Askatasuna parkean. TXINTXARRI

Isak, Eduk eta teknikariek lan izugarria egin dute. TXINTXARRI

Alex Tetuan kidea omendu zuten Katxiporretakoek. TXINTXARRI

Armin Agustin. TXINTXARRI

Belaunaldi berrien ongietorri ekitaldia. TXINTXARRI

Izan Iñurri-ren '(Min)Bizi' desfileko partaideak. TXINTXARRI

Gaueko emanaldietako bat. TXINTXARRI

Elektropottottek Okendo eta inguruak astindu zituen. TXINTXARRI

Sukaldariak ere igo ziren oholtzara. TXINTXARRI

DJ Ixter eta DJ Fantasia. TXINTXARRI

Yogurina Borova (aurrean, ezkerrean) izan zen Palbongoko gonbidatu berezia. TXINTXARRI

Herritar askok egin zuten parranda larunbat gauean. TXINTXARRI

Igandea 23

Gaupaseroek egin zuten 24. ordu aldaketa, zortzikoteko zenbait kiderekin batera. TXINTXARRI

Diafreoari buruzko mahai ingurua. TXINTXARRI

Txaldatxurrera igo aurretik, azalpenak ematen. TXINTX.

Ipar martxakoen koreografia. TXINTXARRI

Kukukako ikasle gaztetxoek euskal dantzen emanaldia egin zuten. TXINTXARRI

Zortzikoteko zenbait lagunek izan zuten erlaxatzeko unerik asteburuan. TXINTXARRI

Xumelaren kantu jira, Kale Nagusian. TXINTXARRI

Julen Gabirondo, segarekin, Askatasuna parkean. TXINTXARRI

Harrijasotzaileen saioa. TXINTXARRI

Herriko zenbait kirolari, Kontxako Banderarekin. TXINTXARRI

Babarrun txapelketako sari banaketa. TXINTXARRI

GuruBuruak, dantzan. TXINTXARRI

Mahaietan eseri aurretik, 'Bero-bero' dantzatu zuten. TXINTXARRI

Babarrun goxo askoak bazkaldu zituzten. TXINTXARRI

Jokoekin dibertitu ziren gaztetxoak. TXINTX.

Manuel Lasartek mikrofonoa hartu eta Xumelako kideekin batera abestu zuen. TXINTXARRI

Bertso eskolako ikasleak fin aritu ziren Okendoko oholtza gainean. TXINTXARRI

Iñaki Arrutik aitortza hunkigarria jaso zuen. TXINTXARRI

Bigarren zuhaitz bat landatu zuten Askatasuna parkean. TXIN.

Bizipoza Jaia egin zuten arratsaldean. Horren aurretik, oihala eta puzzlea erakutsi zituzten. TXINTXARRI

Erromerian gustura dantzatu zuten herritarrek. TXINTXARRI

Dinbi Bandaren saioa. TXINTXARRI

Zapidunei aitortza ekitaldia egin zieten. TXINTXARRI

Alboka, Zero Sette eta Erketzen emanaldiko une bat. TXINT.



40 ordu ez, 42 izan ziren. TXINTXARRI

Hamar atzamarrak zerurantz altxa zituzten denek. TXINTXARRI

Azken agurra oso hunkigarria izan zen. TXINTXARRI

sentitu

prestatu...

eta ekin!

urriaren 24tik azaroaren 18ra bitartean

GURUTZALDIA

GOZATU PRESTATZEN!

Ahobiziak eta **belarriprestak**
ahalduntzeko ordubeteko saioak

Hilaren 24tik azaroaren 17ra, hizkuntza asertibitatean entrenatuko gara kolektiboki, hizkuntza ohiturak aldatu eta konplexuak alde batera uzteko. Saioak Antonio Mercero gunean izango dira, azaroaren 7tik 10era (biak barne). 18:00etatik 19:00etara edo 19:00etatik 20:00etara.

Hizkuntza ohiturak aldatzeak nork bere aldetik ahalegintzea eskatzen du, eta esfortzu horretan lagundu nahi ditugu lasarteoriatarrak. Horretarako, hizkuntza asertibitatean entrenatzeko saio kolektiboak antolatu ditugu Antonio Mercero gunean: Bea Egizabal eta Intza Alkain izango dira gidariak, gure guru linguistiko gogokoenak. Umore handiz, konplexu eta aurreiritziak alde batera utzi eta herritarrak euskahalduntzeko aholkuak eskainiko dituzte ordubeteko saioetan.

MERCERO GUNEAN	A	Z	A	R	O	A
ORDUA / EGUNA	7	8		9		10
18:00 - 19:00	X					
19:00 - 20:00						

Gerturatu zure sakelako telefonoa eta izena eman!

Deitu: 943-37 61 84 (Udaleko Euskara Zerbitzua) edo 943-37 14 48 (Ttakun Kultur Elkartea)

Aldizkari honekin batera Prestatu fasearen kartela jasoko duzu. Hartu, eta eskegi Sentiturenaren alboan, etxeko leiho edo balkoiren batean! Ez izan beldurrik kanpoko aldean zintzilikatzeko, papera iragazgaitza baita! Lagundu herria girotzen!

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EMAN IZENA EUSKARALDIAN

izenematea.euskaraldia.eus

AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Ariketa izango den 15 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al zaude?

BAI, BETI

1) Lehen hitza euskaraz egingo dut.
2) Elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.

AHOBIZI

BAI, NAHI ETA AHAL DUDANETAN

1) Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
2) Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.

BELARRIPREST

sentitu

EUSKARAREN
10. MARATOIA

25 LASARTE-ORIA BAI!!

Maratoitik...krosera!

Zorte on korrikalariei!

Gure produktuekin 8 sorta
zozketatuko ditugu
korrikalari guztien artean!

Patxi Larrañaga
Ana Iparraguirre
Naroa

Patxi Larrañaga

Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria
Tel. 943-37 26 68 - Faxa: 943-37 07 37

Ezker-eskuin: Kirol zinegotzi Txus Alonso, Aitor Azkonobieta eta Bego Toquero (Ostadar SKTko ordezkariak) eta Agustin Valdivia alkatea. Berriki egin dute Lasarte-Oria Bai! 25. Kros Herrikoiaren aurkezpena. TXINTXARRI

Edizio berezia, aurtengoa

Hiru urtez atzeratu behar izan du Ostadar SKTk Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia koronabirusaren ondorioz. Badator, ordea. Igande honetan, hilaren 29an ospatuko dute kirol proba. Ibilbide aldaketa dakar aurtengoak, eta zenbait jarduera berezi ere bai

Txintxarri

Lasarte-Oria Bai! 25. Kros Herrikoia aurkeztu du Ostadar SKTk. Igande honetan, hilak 30 egingo dute, eta horren berri eman dute antolatzaileek, udal ordezkariek lagunduta. Edizio berezia izango da aurtengo, 25.ena izango baita. 2020. urtean bete zuen kirol probak mende laurden, baina koronabirusa medio, hiru urtez atzeratu behar izan dute.

Agustin Valdivia alkateak eta Kirol zinegotzi Txus Alonsok hartu dute hitza agerraldiari hasiera emateko, eta azpimarratu, herrian antolatzen diren jarduera "arrakastatsuenetarikoa" dela krosa. Kirol egitasmo bat izanagatik, herriaren ekonomian duen inpaktua ere nabarmendu dute: "Lasarteoriatarrentzat hitzordu garrantzitsua da; kirol proban parte hartzeaz gain, herrian sekulako giroa sortzen da, eta horrek ere eragin zuzena du herriko establezimenduengan".

Aurtengo diru laguntza "berezia" izango dela ere jakinarazi dute. Soziekonomia batzordeak 5.100 eurorekin lagunduko du 25. edizioa, eta, horrekin batera, urtero bezala, produktu ezberdinez betetako 2.000 poltsa ere emango dizkie; *Tratu on bat Lasarte-Oria* marka sustatzea da horren helburua. Ostadar SKTko ordezkariei hitza eman aurretik, zoriondu egin dute kirol taldea urteurrenagatik.

Aitor Azkonobieta eta Bego Toquero Ostadar SKTko ordezkariek hitz egin dute gero. Eskerrak eman dizkiote udalari edizio berezi honetarako dirulaguntza gehiago emateagatik. Azpimarratu dute Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak bi oinarri dituela; kirol proba batetik, eta herriko ekonomia sustatzea bestetik. "Gure apustua Lasarte-Oriaren aldekoa da, herriarekin eta herriarentzat egitea da". Horrela, aurten ez dute dominarik ez gisa horretako bestelako garaikurrik banatuko, herriko komertzioetan erabiltzeko erosketa txartelak baizik. Gainera, urteurrena ospatzeko ekitaldi ezberdinak iragarri dituzte, hala nola, txistulariak eta txaranga ibiliko dira herriko kaleak alaitzen, eta, trikipoteoa ere antolatu dute.

Hainbat datu ere ezagutarazi dituzte prentsaurrekoan; besteak beste, 1.100 parte hartzaile inguru espero dituztela, eta, urtero, izena ematen duten kirolari guztien artean %50a herritarrak izan ohi direla.

Korrika Festa ere ez dute bazter utzi. Krosa amaitu eta gero izango da, eta, orotara 25 lasterketa izango dira. Bertan parte hartuko duten hiru belaunaldi gazteek dominak jasoko dituzte sari gisa.

Izen ematea zabalik

Kirol proban parte hartu nahi dutenek badute, oraindik, izena emateko aukera. Aurrez aurre egin nahi dutenek Manuel Lekuona Kultur Etxera joan beharko dute gaur, hilak 28 (17:00etatik 20:00etara) eta bihar (hilak 29), berriz, Michelin kirol gunera 11:00etatik 12:00etara edo 17:00etatik 19:30era. Igandean ere izango da horretarako aukerarik, 09:00etatik 10:15era, leku berean. Aldiz, inskripzioa sarean egiteko aukera ere eskaintzen du kirol taldeak. Horretarako helbide hau erabil daiteke: *https://www.sailkapenak.com/es/evento/xxv-lasarte-oria-bai-kros-herrikoia-2022*.

Eguraldia, lagun

Udazken girokoa beharko luke urriak, baina, erabat bestelakoa izaten ari gara hilabeteotan. Urte saio honetarako tenperatura altuak izan ditugu, eta astebururako iragarpenek ere bide beretik jotzen dute.

Irteera puntu berria izango du aurtengo probak. Geltoki kalean egiten ari diren lanak medio, moldaketa batzuk egin behar izan dituzte ibilbidean. Horrela, ohiko irteera puntua Frutas Ruiz paretik egiten zen, baina aipatu obrak direla-eta, metro batzuk aurreratu behar izan dute hasiera arkua eta Ostadar SKTren egoitza ondoan hasiko da lasterketa. Aldaketa horrekin galtzen diren metroak, berriz, Txartel pareko industriagunera sartuta berreskuratuko dira.

Txistulari eta dantzariek agurra jo eta dantzatuko diete omenduei (Ostadar SKTren sortzaileak izango dira) eta 10:28an patinatzaileak aterako dira; jarraian, korrikalariak, eta azkenik, ipar martxako lehiakideak.

Zenbait gomendio ere eman dituzte antolatzaileek, hala nola, egunean bertan autorik ez erabiltzea. Halere, erabili beste erremediorik ez dutenentzako honako jakinarazpenak helarazi dituzte. Michelingo sarrera-irteera eta Geltoki kalea 10:00etatik 14:00etara itxita egongo dira, eta Erdigunea, Pablo Mutiozabal, Juan de Garay, Iñigo de Loiola eta Pintore kaleek Geltoki kaletik irteera moztuta izango dute goiz osoan zehar. Urbil merkatalguneko biribilgunetik irteteko aukera izango da, 10:50etik aurrera.

Hala, Atsobakar, Sasoeta, Buenos Aires, Zumaburu, Kotxeras eta Oria eta Zubieta ere 10:20etatik 11:30 ingurura itxita egongo dira, eta Galp gasolindegiko biribilgunea ere bai (10:40tik, 11:10 bitarte). Hipodromo zubia, Zubietara bidean 11:30ak arte ere ezingo da erabili. Txikierdi ere antzeko; herrira edo Zubietara doazen ibilgailuentzako itxita egongo da 10:00etatik 14:00etara, eta Michelin lantegira doazen kamioientzat ere bai, 10:00etatik 12:30era.

Lasarte-Orian
Guk Kirola euskar

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

LASAR
UDALA - AY

Laguntzaileak: DYA, Danok Kide, AEK, Jalgune, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Zubietako Herri Batzarra, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu ikaste

Eman izena urriaren 30a baino lehen:
Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89

Ttakun · euskaltzaleen topagunea · munitteri · UDAL EUSKALTEGIAK · LASARTE-ORIA UDALA

Antolatzaileak

BIKAIN

Korrika Festa ere itzuli da Lasarte-Oriako kaleetara

Hiru urteko itxaronaldia amaitu da. Etxeko txiki eta gazteek erdiguneko kaleetan barrena lasterka egingo dute hilaren 30ean. Oraindik badago aukera dortsalak hartzeko. Gaur arratsaldean Manuel Lekuona Kultur Etxean izena eman ahalko dute; bihar eta etzi, Michelin kirol gunean

Txintxarri

Hilaren 30ean Korrika Festaren edizio berezia izango da. Hiru urteko etenaren ostean, Geltoki eta Uistin kaleak senide, lagun eta herritarrez beteko dira 5 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteak lasterka ikustera. Ordubetez mila bat partaideren (antolatzaileen aurreikuspena hori da) ausardia eta trebezia izango dira protagonista.

Adinaren arabera, 1.200 eta 100 metro arteko lasterketak egingo dituzte igandean. Gaztetxoak –infantil eta kadete mailako partaideak– izango dira korrika egiten lehenak. 12:15ak aldera izango da hori.

Ostean, Korrika Festa lehenengoz biziko duten 2017 (12:35ean) nahiz 2015-2016 urteko haurren txandak (12:45ean) izango dira. Horiek distantzia motzenak egingo dituzte; 100 metro eta 150 metro, hurrenez hurren. Ordutegiak eta ibilbideak ondoan dagoen mapan ikus daitezke.

Izen ematea egitean jasotako kamiseta teknikoaz gain, helmugara iristean guztiek izango dute saria; Jalguneko lagunek banatuko dute adin bakoitzari dagokion oparia.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, haurrek lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago egon beharko dute dagokien harrera guneetan. Izena eman ez duten gazte eta haurrei azken ordura arte ez itxaroteko gomendioa egin diete antolatzaileek.



TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
A	2007/08	12h15'	1.200m
B	2009/10	12h25'	1.200m
C	2017	12h35'	100m
D	2015/16	12h45'	150m
E	2013/14	12h55'	400m
F	2011/12	13h05'	800m

BIKAIN

Horretarako, gaur inskripzio gunea irekia egongo da, hilak 30, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara; bihar, Michelin kirol guneko pilotalekuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era. Azken aukera, igandean bertan izango da, 09:00etatik 10:00etara, kirol gunean.

Kroseko 25 aldiek, hamaika irudi

Kros herrikoiaren oroitzapenak

LEHEN KROSA, AURKEZPENA

1996 LEHEN KROSA

1997 II. KROSA

1998 III. KROSA

1999 IV. KROSA

LIDE NAVARRO

2000 V. KR

2002 VII. KROSA

2003 VIII. KROSA

2004 IX. KROSA

2005 X. KROSA

2006 XI. KR

2008 XIII. KROSA

2009 XIV. KROSA

2010 XV. KROSA

2011 XVI. KROSA

2012 XVII. K

2014 XIX. KROSA

2015 XX. KROSA

2016 21. KROSA

2017 22. KROSA

2018 23. KR

25. KROSA, AURKEZPENA

Urteurren bereziko ospakizunak

25 urte edo aldi, ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. 1996 urtean Euskararen Maratoiaren barruan egin zen lehen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Lasarteoriatarren egutegi eta bihotzetan lekua egin, eta urtez urte partaide kopurua handitzen joan da: gure herrikoak ez ezik, beste askotakoak ere etortzen dira lasterketan parte hartzera. Eta ez hori bakarrik: korrikalariez gain, gurpildun aulkiko lehiakideak, patinatzaileak eta ipar martxako kideak ere gehitu ditu. Urte hauetan guztietan ibilbidea moldatu behar izan dute antolatzaileek behin baino gehiagotan.

25 edizio horiek ospatzeko Ostadar SKTko kideek herriari bizia emango dioten ekimen bereziak antolatu dituzte hilaren 30erako. Lasarte-Oriako txistulariek 09:00etatik 10:15era herria esnatuko dute. Eguerdian, herriko kaleak alaituko ditu Oaintxe in deu! txarangak. Arratsaldean, berriz, 18:00etatik 19:30era trikipoteoa egingo dute herriko kaleetatik.

Horrez gain, antolatzaileek Lasarte-Oriako taberna, jatetxe, okindegi eta bestelako komertzioek eskainitako oparien zozketetaren barruan bost sari berezi izango direla iragarri dute, Noaua Bidaiaken eskutik.

00 V. KROSA

2001 VI. KROSA

6 XI. KROSA


2007 XII. KROSA

AITZOL ETXEGOIEN

2 XVII. KROSA

2013 XVIII. KROSA

8 23. KROSA

2019 24. KROSA

TXINTXARRI

Aurtengo Beldur Barik lehiaketa martxan dago

12 eta 20 urte arteko gazte lasarteoriatarrek aukera dute Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, Lasarte-Oriako Udalak aditzera eman duenez. Egitasmoaren helburua da emakumeek jasaten dituzten bereizkeria egoerei aurre egiten dieten neska-mutilen adierazpenak onartu, baloratu eta bultzatzea. Horretarako, ikus-entzunezko lanak egin eta bidali beharko dituzte, balio hauetan oinarritutakoak: errespetua, berdintasuna, askatasuna, autonomia, erantzukizuna eta indarkeria sexistaren gaitzespena. Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 11 da, ostirala.

Partaideak adinka banatuko dituzte antolatzaileek, hiru kategoriatan: 12 eta 14 urte artekoa, 15 eta 17 urte artekoa eta 18 eta 20 urte artekoa. Bakoitzean gailentzen den lanaren egileek 200 euro jasoko dituzte. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 24an egingo du udalak, ostegunarekin, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Informazio gehiagorako, idatzi *emakumezentroa@lasarte-oria.eus* helbide elektronikora edo deitu 943-36 39 58 nahiz 688 68 39 54 telefono zenbakietara.

TXINTXARRI

Bi kale itxiko dituzte, obrengatik

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman du itxi egingo dituela Geltoki eta Iñigo de Loiola kaleak azaroaren 2tik 4ra, horietan egiten ari diren obrak tarteko. Zehaztu du egun horietan bi kaleak fresatu, asfaltatu eta pintatu egingo dituztela. Esan bezala, ibilgailuen joan-etorriak azaroaren 2an etengo dituzte, asteazkenarekin, 10:00etatik aurrera.

ZORION AGURRAK

Haizea
Zorionak artista!!! 8 urte dagoeneko! Oso ondo pasa zure egunean eta mila muxu etxekoen partetik. Maite zaituguuu!!!!

Noa
Zorionak Noa! 6 muxu erraldoi aitatxo. amatxo eta Albaren partetetik. Asko maite zaitugu!

Fermin
Eta beste urte bat! Zorionak! Tarta kandelaz beteta dugu, baina berdin-berdin jango dugu! Muxu asko familiaren partetik.

OHARRA

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!

San Silvestre lasterketa sari babesle bila

Hasi dira San Silvestre Lasarte-Oria 2022rako prestaketa-lanak. Lasterketaren antolatzaileek SSLO2019an parte hartu zuten enpresei eskerrak eman nahi dizkie, lasterketa arrakastatsua izan zedin elkarlanean aritu zirelako.

Horren ildotik, San Silvestreren arduradunek aurten ere Lasarte-Oriako enpresa eta denda desberdinak gonbidatu nahi ditu euren produktu edo/eta sariak eskaintzera, lasterketako parte-hartzaileen artean zozketatu ahal izateko. Antolakuntza taldeak jakitera eman duenez, aipamen berezia egingo die parte hartzen duten enpresei bere komunikazio sare desberdinetan. Azaroaren 30a izango da babesle talde honetan sartzeko azken eguna.

Interesa duten komertzioek probaren web orriaren bitartez jar daitezkete harremanetan antolatzaileekin: *http://www.sansilvestrelasarteoria.com/sariak.*

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean, hilak 30: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LASARTE-ORIA Musika. Danok Kide elkarteark *Ave Maria...* kantu eta organo emanaldiarekin emango dio hasiera aurtengo Musika Topaketei. Komentuko organoa izango da protagonistetako bat, Ana Belen Garcia organo jolearen eskutik. Bestetik, Easo abesbatzeko kide Marta Garcia eta Mari Jaunarena sopranoak zein Ander Larruskain eta Izei Mugica tenoreak izango dira kantuan. Egitaraua, besteak beste, F. Schubert, C. Verdi, C. Frank edo C. Gounod konposagile handien lan sakroez osatua dago.
Ostirala 28, Ama Brigitarren komentuan, 19:30ean.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema
Danok Kidek antolatutako musika topaketak hasiko dira, kantu eta organo emanaldi batekin.
Komentua, 19:30ean.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema
Un héroe samurai filma emango dute, haurrei zuzendutako zinema atalean. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
El vasco filma proiektatuko dute, helduentzat, 6 euroren truke.
Kultur etxea, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Musika
Kalean taldeak kontzertua emango du. Sarrera, doan.
Jalgi Kafe Antzokia, 20:00etan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Ostadar SKT - Antiguoko
Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunea.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Usurbil FT
Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunea.

KADETEEN 1. MAILA

Ostadar SKT B - Usurbil FT B
Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunea.
Texas Lasartearra - Martutene KE D
Igandea. 14:55. Michelin kirol gunea.

ARETO-FUTBOLA

1. MAILA

Gaintxu AF - Eguzki Arkupe Rehab.
Ostirala. 22:15. Beko Errota, Lezo.

2. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Goierri FS
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

JUNIOR ERREN. ZILARRA

Bera Bera B - Ostadar SKT
Larunbata. 10:00. P. Yoldi kirol., Donostian.

KADETE ERREN. ZILARRA

Ostadar SKT - Panelfisa TAKE
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

ESKUZ BANAKA, ALEBIN 2. MAILA

Intza (Maiz)- Hondarribia
Larunbata. 16:15. (1. partida)
Loidibarren pilotalekua.

Intza (Iparragirre)- Oiarpe
Larunbata. 16:15. (2. partida)
Loidibarren pilotalekua.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA, SENIOR

Navarvoley - Ostadar SKT
Igandea. 11:30. Berriozarko kirol.

EUSKAL LIGA, SENIOR 2. MAILA

Ostadar SKT - Gr. Eleyco Udapa Jatorkide
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

IGERIKETA

ALEBIN LIGA

Buruntzaldea IKTko alebinek ligako 1. jardunaldiarekin denboraldiari hasiera emango diote.
Larunbata. 16:00. Hernaniko kirol.

LASTERKETA

LASARTE-ORIA BAI! KROSA

Ostadar SKTk antolatuta Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia eta Korrika Festa izango dira herriko kaleetan barrena.
Igandea. 10:28. Lasarte-Oria.

txintxarri
www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Mertxan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

sentitu

EUSKARAREN
10. MARATOIA

25 LASARTE-ORIA BAI!!

eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari

errigora
errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da

aek
astolenelkartea
Sortzen

argazki lehiaketa

Argazki politak atera dituzu Euskararen Maratoian?
bidal iezaizkiguzue
maratoialdia@gmail.com
646 82 44 66

EUSKARAREN MARATOIALDIA

SARIA: CASA HUMADA-TXITXARDIN jatetxean bi menu

EUSKARAREN MARATOIALDIA

EUSKARAREN
10. MARATOIA

sentitu

mila esker Lasarte-Oria

eskerrik beroena ere:

Illarreta Iturgintza (furgona) | Aldika Kutixiak (furgona isotermikoa) | Intza elkartea (Txokolatada eta markagailua) | Avenida taberna (salda) | Eusko Label (txekorra) | Andoaingo Udala (txosna) | Ordiziko Udala (babarrun lehiaketako suak) | Argote eta BM supermerkatuak (transpaletak) | Boluntario ibili zareten guztioi! Bejondeizuela!

Ttakun Kultur Elkartea